

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Liburutegi Zerbitzuak aholkularitza teknikoa emango dio Medellingo liburutegi publikoen sistemari

Asun Maestro zerbitzuko zuzendaria hiriburu kolonbiarrera joan da esperientziak trukatu eta lankidetzarako akordioak sinatzeko helburuarekin

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Nafarroako Gobernuak Liburutegi Zerbitzuaren bitartez aholkularitza teknikoa emango dio 31 informazio-gune eta -unitate dituen Medellingo liburutegi publikoen sistemari. Hain zuzen, liburutegien balio sozioekonomikoko inaktuaren azterketa-prozesuan eta -metodologian lagunduko dio, Foru Erkidegoan egindako azterketa oinarri hartuta.

Medellingo alkateak Liburutegi Publikoen programa iberamerikarraren ([Iberbibliotecas](#)) bitartez jaso zuen eskaera.

Xede horrekin, Asun Maestrok zerbitzu honetako zuzendariak hiriburu kolonbiarrera bidaiatu du, helburu bikoitz batekin, Antioquiako hiriko liburutegi-sistema ezagutzera ematea, batetik, eta Nafarroako azterketarekin lortutako emaitzak erakustea, bestetik.

Egonaldian zehar bisitak antolatu dituzte hainbat liburutegietara eta haien ekintza- eta hedapen-zentroetara, emakumeen kartzelara kasu, eta bilerak koordinatzaile, liburutegiko langile eta eremu ezberdinetako antolatzaileekin. Horrez gain, bilera instituzional bat aurreikusi dute Daniel Zapatarekin Medellingo Alkatzeko Liburutegi, Irakurketa eta Ondare Saileko idazkariordearekin.

Bidaia honekin hasiko den aholkularitza teknikoak laguntza eta euskarri teknikoa ematea du xede Medellingo liburutegi publikoen sisteman azterketa bat egin ahal izateko Nafarroan egindakoaren antzeko ezaugarriekin. Halaber, erkidegoaren eta hiriaren arteko lankidetzarako akordio sendo bat lortu nahi du, eta, horretarako, haietan dauden liburutegi publikoak eta gizarte-, kultura- eta hezkuntza-eremuetako beste erakunde batzuk erabili, bakea eta bizikidetzaren eraikitzeak funtsezko agenteak direlako.



Espadas, Peña, Maestro, Restrepo eta Rojas, Parque Biblioteca José Horacio Betancur liburutegian, Medellinen.

Argazki-oina: ezkerretik eskuinera Natalia Espadas koordinatzaile teknikoa; Luz Estela Peña Medellingo Liburutegi Publikoen Sistemako burua; Asun Maestro; Alejandra Restrepo Irakurketa Kluben koordinatzailea; eta Andrea Rojas proiektu Estrategikoen koordinatzailea.